



## Onartu da 2020ko egitasmoa

**Urte hasieran aurreikusitakotik aldaketak izan dituzte proiektuek eta horiek ere azaldu zaizkie bazkideei. Nahi baino beranduago, baina onartuta geratu da egitasmoa.**

Eta egin zen Batzar Nagusia. Martxoaren 15ean behar zuena ia lau hilabete geroago egin behar izan dugu, halaberrez. Pandemiak datan eragina bakarrik ez eta egiteko moduetan ere izan du zerikusirik: bazkide gutxi batzuentzako tokia izan du batzarrak eta telematikoki jarraitu dute hala nahi zuten bazkideek.

Jatorrizko batzarrean aurkeztea aurreikusten genuen egitasmoa ere "kutsatu" du COVID-19ak. Batetik, plaza berrindartzeko behin-behineko eta berehalako neurriak hartu ditugu bertsolaritzaren eta bertsolarien egoera zaurgarria leuntzeko: besteak beste, saioak antolatu eta sustatu dira, hasiera batean zalerik gabekoak eta zaleekin egindakoak gerora.

Bestetik, aurreikusitako egitasmoa doitu behar izan dugu. Hezkuntza arauturako prestatutako sareko erremintei esker bertsolaritzaren irakaskuntzak jarraitu ahal izan badu ere, asko izan dira bertan behera geratu edota atzeratu diren ekitaldiak: Eskolartekoa, Bardoen eta Arabako Bertso Kuadrilla Artekoen azken saioak eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarriko Fasea udaberritik udazkenera pasa dira - uztailaren hasieran egin berri da Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoari dagokion Eskolarteko xapelgoa - . Tartean dago

partaidetza prozesua ere: elkartearen dugun parte-hartzeko moduari eta funtzionamenduari buruzko dinamika hasi behar genuen urtearen lehen erdian Bertsozale Elkartearen kideok, baina urtearen amaierara mugitu behar izan da.

### Aldaketak lurraldeetako zuzendaritzetan

Aipatutako gai horien guztien berri xehatua eman da batzarrean, baita alor ekonomikoari loturikoak ere. 2018an egin zen gogoeta prozesuko ondorioak ari gara gure zereginetan txertatzen, eta horietako batzuk nabarmendu ditugu batzarrean: kulturgintzan ari garenen kontzientzia indartzea esate baterako edota, perspektiba feministan pauso bat gehiago emanda, eraso matxistak kudeatzeko protokoloa diseinatzea.

Plazako bertso saioak etenda, Aldi Baterako Enplegu-erregulazioko Espedientea izan du Lankuk eta horren gainekoak ere ekarri ditu Beñat Gaztelurrutia arduradunak. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako eta Nafarroako Bertsozale Elkarteetako ordezkariak ere hartu dute parte. Egitasmoan ez ezik, egituraren bertan ere izan dituzte aldaketak horietako zenbaitek: Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen lehendakari izateari utzi dio

Saroi Jauregik eta Asier Azpiroz kide izango duen taldea ari gara osatzen, eta Bizkaian Asier Ibaibarriagaren lekua hartuko du Belate Oلابarriak.

Ez dira aldaketa bakarrak, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Lehendakartzatzaile taldeak kide berria baitu. Gontzal Agote apirilean hasi zen; urteetan Euskal Herriko, Gipuzkoako eta Nafarroako Bertsozale Elkarteetan aritu zen bera. Batzar Nagusian parte hartu du.



**INAXI**

**ETXABE OLIDEN**

**Anaitasuna aldizkaria 1955-XI  
Basarriari erantzuna**

Sorta osorik: <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/uci8g>

Neurria: Hamarreko handia (hg)/  
Bost puntuko handia (ip)

Basarri jauna, zuk badaukazu aitona bat maite dezuna zeuk diozun bezarekin oso sarri tratatzen dezuna eta zuk ontzat ematen dezu arek esaten dizuna. Irakurrita daukat nik ondo bertsotan jarri dezuna. Amen dijoakizu, ba, orain neskatx baten erantzuna.

Emakumeak utzi gaituztu oso okertzat artuta munduan diran zorigaitz danak gure lepore botata. Gizasemiak ote daukatuztu oso santuztat artuta? gai onen kontra zer esanikan etzait neri orain falta BIOTZA NOLA JARRIA OSO DAUKATEN MINBERATUTA



Aho batez adostu du Batzar Orokorrak aurtengo egitasmoa. / XDZ

# Ahokotasunaren inguruko ikerketak esleitu ditugu

**Pello Mari Otaño beka eta Mikel Laboa Katedrarekin batera ateratako ikerketa proiektu sariak eta kontratua banatu ditugu, Mintzola Ahozko Lantegiaren bidez.**

Aurtengoan ere banatu ditugu Mintzola Ahozko Lantegiaren bidez UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean eskaintzen diren ikerketa proiektu sariak eta kontratua; azken honek UPV/EHUko Euskara eta Ikerkuntza Errektoreordetzen babesa ere badu. Alde batetik, ahozko kultur sorkuntza ikertzeko bi proiektu 2.000 euroko sari banarekin saritu dira. Lehen proiektuak *Bertsolaritzaren erresistentzia funtzioa belaunaldi desberdinetako bertsolari eta bertsozale emakumeen ahotsetatik: ikerketa-ekintza parte hartzailea* izena du. Egitasmoa ondoko kideek osatutako taldeak aurkeztu zuen: Leire Amenabar Larrañaga, Miren Aiertza Odriozola, Ines Huarte Gonzalez, Ane Bengoetxea Erezuma eta Ana Villanueva Martinez. Saritu den bigarren ikerketa proiektua *Maialen Akizuren Zaintzaren ekonomia eta euskal kultur sorkuntza: bi ikusezin, elkarri begira: Lehen hurbilpen baterako, bertsolaritzaren kasua aztergai izeneko lana* izan da.

Beste alde batetik, ahozko kultur sorkuntza ikertzeko kontratua ere esleitu dugu. *Bertsolaritzaren autonomia auzitan: utilitarismoa, txapelketak, hedabideak, irakaskuntza eta hibridazioa* izeneko tesia egin dezan Kepa Matxain kontratatuko du UPV/EHUk.

## **Aiztondoko zirtoa, aztergai**

Haritz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkartegunak aurkeztutako proiektuak eskuratu du Pello Mari Otaño beka. Aiztondo bailaran (Gipuzkoa) izan den zirto tradizioa bildu eta ikertuko dute eta haren aplikazioa ere proposatuko dute, Aiztondoko ikastetxeetan landu dadin. Proiektua, zehazki, Beñat Iguaran Amondarain, Haritz Mujika Lasa, Imanol Artola Arretxe, Mikel Artola Izagirre, Oihana Iguaran Barandiaran eta Unai Mendizabal Jauregi kideek egingo dute. 3.000 euroko ordainsaria eskuratu du ikertzaile taldeak, lana urtebeteko epean garatzeko.

Mintzola Ahozko Lantegiak eta Kilometroek egin genuen deialdia, Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo Zubimusu ikastolaren eta Zizurkilgo Hernandorena Kultur Elkartearen babesarekin.

Antolatzaileok proiektu saridunaren oso balorazio ona egiten dugu: Aiztondoko ondarea biltzeaz eta ikertzeaz gainera, egungo ahozko sormen eta komunikazio beharrak hezkuntzan lantzeko balioko du, proiektuak proposatzen duen aplikazio didaktikoaren bidez.

# Ahokotasunaren eta ahozko kultur sorkuntzen didaktika elkarbanatzeko tartea hartu dugu udako ikastaroetan

**Uztailaren 9an eta 10ean egin zen Donostiako Miramar jauregian ikastaroa UPV/EHU Uda ikastaroen barruan; interes handia piztu du gaiak.**

Ahokotasuna edonon eta edonoz ageri zaigu, eta horren kontzientzia hartu eta transmititzea ezinbestekoa da. Horixe mezu orokorra UPV/EHU Uda Ikastaroetan antolatu dugun *Ahokotasunaren eta ahozko kultur sorkuntzen didaktika* ikastaroan. Dударik gabe, pandemiak moldaketak ekarri zituen ikastarora ere, baina horrek ez zuen ikasleen grina mugatu. Donostiako Miramar Jauregiko aretoa jendez bete zen uztailaren 9an eta 10ean, eta online jarraipena ere arrakastatsua izan zen.

Lehenengo egunean, ahozko kultur sorkuntzen transmisioan jarri zen indarra. Ahokotasuna hezkuntzan txertatzeko moduez aritu ziren Arantxa Hirigoyen Axut antzerki kolektiboko arduradun pedagogikoa, Gotzon Barandiaran kultur gile eta *Hitzen Ahairea eta Musikariak ikastetxeetan* egitasmoetako sustatzailea eta Mikel Artola Bertsozale Elkarteko hezkuntza eragile eta ikertzailea. Horri jarraikiz, antzerkiak, kantagintzak eta bertsolaritzak hezkuntzan dituzten zenbait egitasmo ezagutzeko aukera ere egon zen eta, amaieran, Bea Egizabal clown inprobisatzaileak bere "klownklusioekin" biribildu zuen saioa.

Bigarren egunean, uztailaren 10ean, Olatz Bengoetxea Soziolinguistika Klusterreko teknikariak abiatu zuen saioa.

Euskal Herrian barrena egindako zenbait ikerketaren berri eman eta partekatu zituen Bengoetxeak. Ostean, Aroa Murcianok, Ainhoa Ezeizak eta Joxerra Garziak hartu zuten parte ikastaroan. Mahai-ingurua osatu zuten hiru horiek amaieran, Karlos Aizpuruaren gidaritzapean.

Emankorra izan da aurtengoa ere, eta seguru erronkaz beteta joan direla etxera bertaratutakoak.



**Amaierako mahai-inguruan Murciano, Garzia eta Ezeiza, Aizpuru zuzendaria gidari dutela. / XDUZ**

# Osasuna bermatuta, bueltan da plaza!

**Plazak hustuko zirenik sinetsiko ez baguenen ere, bueltatuko zirela sinesten zail izan genuen udaberrian. Baina apurka-apurka badoa plaza itxura hartzen, eta horretarako buru-belarri ari dira lanean Lanku Kultur Zerbitzuetako kideak.**

Desertu bihurtu zen bertso agenda udaberriko hilabeteetan, baina orain badoa loratzen, eta [bdb.bertsozale.eus](http://bdb.bertsozale.eus) atariko agenda etengabe ari da saioak pilatzen.

Lanku Kultur Zerbitzuetan igartzen dute hori, uztailen eskarien gorakada nabarmena izan dute eta. Orain, gainera, saioen antolaketari lan bat gehiago erantsi zaio: segurtasun neurriak kontuan izatea. "Antolatzaileak eurak dira segurtasun neurriak buruz galdetzen dutenak, badakitelako denon osasunaren alde bete beharrekoak direla", adierazi dute Lankuko kideek. "Kontzientzia badago eta hori da garrantzitsua", gaineratu dute. Dena dela, aholkuak ematen dizkiete antolatzaileei eta behar dutenean lagundu. "Neurri dezente dira kontuan izan beharrekoak. Adibidez, saiora sartu aurreko iladetan segurtasun tarteak errespetatu behar dira,

saioan bertan ere bai, musukoa eraman behar da aukietan eseri arte, baita saioko momenturen batean mugitu nahi bada ere. Aforoak kalkulaterakoan 1,5 metroko distantzia soziala bermatu behar da musukorik gabe egon ahal izateko, beti ere jendea eserita delarik. Bertsolariei dagokionez, bakoitzak bere mikrofono propioa behar du", azaldu dute. Neurri horiez gain, lekuan lekukoak ere kontuan izan behar direla gaineratu dute Lankuko kideek.

Guztion osasuna bermatuta saioak egitea posible dela ikusi dugu neurri zehatz batzuk jarraituta. Beraz, antolatzaileak animatu nahi ditugu. Behar duten aholku zein laguntza guztia jasoko dute Lanku Kultur Zerbitzuetatik. Saio bat antolatu nahi izanez gero, deitu Lankuko telefonora 943 26 07 55 edo idatzi saioak@lanku.eus helbidera. Berpiztu dezagun plaza!



Guztion osasuna bermatzeko neurri guztiak hartuta bueltatu gara plazara. / XDZ

## Udazkenean jokatuko dira Xilaba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

**Txapelketek bete ohi dute bertsozaleen udazkeneko agenda eta, aurtengoan ere, hala izatea nahi genuke. Ondo bidean, irailean hasiko da Xilaba eta urrian, ostera, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.**

Seinale ona izango da udazkenean bertso agenda martxan mantentzen badugu. Bete-betea dator gainera: txapelketak, eskolartekoa, eta taldekakoak jokatuko dira.

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko xapelketari dagokionez, 28 bertsularik parte hartuko du lehian, inoizko kopururik altuena. Irailaren 19an hasiko da Hiriburuko La Perle gelan eta azaroaren 21ean jokatuko da finala Donibane Lohizuneko Jai Alain. Guztira, 10 saio jokatuko dira.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketari dagokionez, urrian hasiko da txapelketa. Sei kanporaketa, hiru finalurreko eta finala jokatuko dira. Finala abenduaren 19an izango da, Bilbon. Aurretik, ostera, maiatzean jokatuko zen Udabarria Bertsotan egingo da, irailean. Fase horretan 60 bertsularik

eman dute izena. Bizkaiko Txapelketa 36 bertsularik abiatuko dute, horietatik batzuk 2018an finalurrekoetan kantatu zutenak eta besteak Udabarriko Fasetik sailkatuak. 2018ko finalistak, berriz, finalurrekoetan hasiko dira kantuan.

Bi txapelketa horiez gain, udazkenean eskolarteko txapelketak ere egingo dira. Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Gazteen Xapelgoa uztailan egin da eta Haira Aizpurua Ibgaraik irabazi du. Herrialde guztietakoak egindakoan, udazkenean, Euskal Herrikoa egingo da.

Azkenik, Bardoak eta Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa berrartzeko asmoa ere badago udazkenean. Pandemia egoera dela eta, atzeratu egin behar izan genituen eta, printzipioz, udazkenean egingo dira.



## Puntua jarrita

**IRATXE MUXIKA KARRION**

Ea zerk eramaten nauen oholta gainean kantatzera. Amaiak botatako punttuari erantzun oso bat emateko esperientzia gehixeago izatea ez legoke gaizki, baina daukadan oinarria jarriz abiapuntu, ahalik eta ondoen erantzuten ahaleginduko naiz.

Oro har, mikrofono baten aurrean kantatzeko, aitzitik konfidantza jakin bat behar da norbere buruarengan, eta erranen nuke hor huts egiten dudala nik. Nahiago izaten dut ikus-entzule artean babestu eta hanka sartzeko arrazoirik ez topatu; barregarri gelditzeari beldurra diodalako akaso.

Ingurua ezaguna izateak ere badu nahiko pisu; bertze maila bateko babesa sumatzen delako pareko begiak ezagunak direnean. Nik erraterako, bertso saio batean izena askoz ausartago eta errazago ematen dut bertso eskolako kideak alboan ditudanean; sare gisako euskarri sendo bat sortzen baita. Hain zuzen honetxek bultzatzen nau oholtzara; inguruko jendeak.

Alabaina, inoiz etorkizunari burumakur begiratu badiot ere, gainerako bertsolari denek garai ilunak pasa dituduztela pentsatzea hagitz lagungarri zait.

Ibilbidea luzea izan daitekeen arren, bertsolaritza badu erakargarri egiten duen zer edo zer, eta horrek mantentzen gaitu bere magalean.

Nik pertsonalki, ez dut neure burua txapelketetan ikusten; baina bertsoa lehiaketa bat baino askoz gehiago izan daiteke. Oholtzetatik at mila kantu goxo, afalondo, bertso-musikatu eta ezusteko daudelako. Hor bai, hortxe ikusten dut neure burua. Bertso eskolakoekin ganbarako gitarra hartu eta ingurukoak aspertu arte kantuan aritzen gara... bertso saio inprobisatuenak ditut gogokoekin; hor bai.

Bertsolaritzan ingurune eta harreman hagitz ederrak sortu ditut, eta nire kasuan behintzat, horrek egiten du hain berezi bertsoa. Hargatik, doinuen espazio ireki horretan jolasean jarraitu nahi nuke, bertze hainbertze urtez.

Zu Uxue, egunero zabilta abesteko bertso berri baten bila; baina, zerk mantentzen zaitu kantu artean?

# Koplak

## Bertsozale Elkarte gero(r)a mugitzen

80 orritara ekarri du elkarteak bere proiektua, orain arte egindako bidea eta hurrengo pausoak azaltzeko: sei bertsozale elkarteok, Lanku Kultur Zerbitzuek, Mintzola Ahozko Lantegiak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroak egitasmo potoloa dugu eskuartean eta Bertsozale Elkarte gero(r)a mugitzen argitalpenean jaso dugu. Batzar Nagusian aurkeztu genien bazkideei eta posta elektronikoz helaraziko zaizue guztioi.

## Poto-Finixa



## Uda honetan, bertso plaza sagardotegian

Bertso saioak sagardotegietan egiteko asmoz, Sagardoak elkartzen gaitu ekimena abiatu dugu Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearekin eta Musika Bulegoarekin batera. Lehenengo saioa uztailaren 15ean egin zen eta beste lau saio daude aurreikusita. Bigarren saioa uztailaren 24an izango da eta sarrerak eskuragai daude [www.bertsosarrerak.atarian](http://www.bertsosarrerak.atarian). Uztailaren 26an, abuztuaren 7an eta 29an ere izango dira saioak. Horietarako txartelak eskuragai daude [www.sagardoa.eus](http://www.sagardoa.eus) gunean.



PUBLIZITATEA